



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

**ALTSASUKO UDALAREN ERABILERA PUBLIKOKO INSTALAZIOEN SAREA
ERABILTZEARI BURUZKO ORDENANTZA
(NAO 184 zbk, 2014ko irailak 19)**

ATARIKOA

LEHENBIZIKO KAPITULUA: Helburua eta izaera

BIGARREN KAPITULUA: Antolaketa

HIRUGARREN KAPITULUA: Eremuen erabilera

LAUGARREN KAPITULUA: Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak

BOSGARREN KAPITULUA: Erabilerari buruzko baldintza orokorrak/erabilerari buruzko arauak

SEIGARREN KAPITULUA: Laga eta erabiltzeko baldintza orokorrak, sustatzaileei begira

ZAZPIGARREN KAPITULUA: Segurtasuna kontrolatzea eta arriskuei aurrea hartzea

ZORTZIGARREN KAPITULUA: Arau-haustek eta zehapenak

AZKEN XEDAPENAK

Atarikoa

Taldeen eta elkarten ekimenak biltzen dituzte maiz udal lokalek, eta talde eta elkarte horientzat esparru egokiak izan ohi dira lokal horiek beren ekimenak gauzatzeko. Hala ere, instalazioak jarduera horiek egiteko irekitzeak ez dio inolaz ere kalterik sortu behar udal jarduerari.

Horregatik, funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoa da erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak antolatzea (bai sareko instalazioak erabiltzen dituzten entitateei bai norbanakoei dagokienez), instalazioen titularra den udal administrazio honen betebeharrak antolatzea, instalazio horiek erabiltzeko irizpideak ezartzea eta erabiltzeko eskaeraren tramitazioarako administrazio prozedura ezartzea.

Hala, instalazio horiek erabiltzeko aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko bidea eman nahi da, Udalaren zerbitzu publikoen zati diren aldetik.

Erabilerarako kontuan izan diren irizpideek lehentasunak ezartzen dituzte erabilera aukeren artean, eskaeraren helburuaren, jardueraren sustatzailearen eta erabilgarritasunaren arabera.

Eremu horiek erabili nahi dituen edozein pertsonak eta/edo entitatek nahitaez bete beharko du araudi honetan ezarritakoa. Lokal bakoitzean eta Udalaren webgunean eskuratu ahalko da araudi hori.

I. KAPITULUA. HELBURUA, IZAERA ETA APLIKAZIO ESPARRUA

1. artikulua. Helburua: ordenantza honen helburua da Altsasuko Udalaren erabilera publikoko lokalen sarea erabiltzeko baldintzak arautzea. Lokal hauek dira:

–Iortia kultur etxea.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

–Gure Etxea.

–Burunda pilotalekua.

–Ikuztegia.

–Intxostiapunta.

–Zelandi kirolgunea.

–Dantzaleku kiroldegia.

2. artikulua. Ekipamendu horiek Altsasuko Udalaren mendeko zentroak dira, eta horietan egiten diren jarduerak eta ekitaldiek komunitatearen gizarte, hezkuntza eta kultur garapena izanen dute xede; horrekin batera, herritarren parte-hartzea bultzatu nahi da baloreen zabalkundea eta kulturen zein belaunaldien arteko bizikidetza eta elkarteak sustatzen dituzten interes publikoko arloetan. Dena den, Udalak eskubidea izanen du lokalen erabilera beste helburu batzuetarako uzteko, horretarako onetsitako prezio publikoekin bat.

3. artikulua. Izaera juridikoa: lokal horiek, baita ondasun higigarriak, ekipamenduak, apainketa elementuak eta material atxikiak ere, herritarren zerbitzura daude, eta zerbitzu publikoari atxikitako jabari publikoko ondasuntzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

II. KAPITULUA. FUNTZIONAMENDUA

4. artikulua. Araudi honetan eta instalazio bakoitzeko erabilera arauetan ezarritakoaren arabera antolatuko dira ekipamenduak.

5. artikulua. Ekipamendu bakoitza udal zerbitzu bati atxikita dago, eta zerbitzu hori arduratuko da bertan egiten diren jardueren antolamenduaz, kudeaketaz eta jarraipenaz, bai eta instalazioak zaindu eta hobetzeaz ere.

a) Iortia kultur etxea eta Gure Etxea: Udalaren kultura zerbitzua.

b) Ikuztegia: Udalaren Kirol Zerbitzua.

c) Intxostiapunta: Gazteria Zerbitzua.

d) Kiroldegiak eta Burunda pilotalekua: Atabo Alsasu, S.L. udal sozietatea.

6. artikulua. Altsasuko Udalak Atabo Alsasu, S.L. udal sozietatearen esku utzi du kirol instalazio hauen kudeaketa: Zelandi kirolgunea, Burunda eta Zelandi pilotalekuak, atletismoko pista eta futbol zelaia, kudeaketa esleitzeko erabakian berean agertzen diren baldintzetan.

III. KAPITULUA. EREMUEKIN ERABILERA



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

7. artikulua. Ekipamendu bakoitzaren erabilera zehazten dute eraikinak berak, ekipamendu teknikoak eta giza baliabideek. Horregatik, ekipamendu bakoitzak berariazko araudia du, eta honako hau jasotzen du: zer erabilera motatarako gaitu den, laga daitezkeen eremuak, irekitze ordutegia eta bakoitzean erabilgarri dagoen materiala.

8. artikulua. Izaeraren arabera, ohiko eta lehentasunezko erabileratzat jotzen dira instalazio bakoitzaren berariazko erabilerarekin zerikusi zuzena dutenak; gainerakoak erabilera bereziak dira. Era berean, intentsitatearen arabera, bi erabilera mota daude: noizbehinkakoa (egun batean egiten diren jarduerak) edo jarraitua (gutxienez hilabete batean eta gehienez ikasturte batean egiten direnak).

9. artikulua. Altsasuko Udala arduratuko da lokal horietan egiten diren jardueren antolaketaz, kudeaketaz eta jarraipenaz.

10. artikulua. Udal instalazioak Udalak berak egindako programazioaren ondorioz erabiltzen direnean, Udalak kasuan kasuko enprekin sinatutako kontratuari jarraituko zaio, eta kontratu horretako baldintzen arabera erabiliko dira.

Jarduera berezien programazioaren ondorioz erabiltzen direnean instalazioak, jarduerari dagokion zerbitzuak txostena egin beharko du, lagapenaren aurretik. Ekitaldia egiteko baimena eman dela ofizioz jakinaraziko da.

11. artikulua. Entitate eskatzailea administrazio publiko bat edo erakunde autonomo bat edo horien mendeko sozietate bat denean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, antolatzaileak Udalaren laguntza edo babesa eskatu ahal du. Udalaren laguntza hori Lankidetzarako Administrazio Hitzarmenean jaso beharko da, bertan zehaztuz eraikina erabiltzeko baldintzak, bai eta eraikina atxikia duten administrazio organoek hori erabili ahal izatea ez eragozteko beharkizun eta baldintzak ere.

12. artikulua. Dena dela, Udalak berak zuzenean edo beste entitate publiko edo pribatu batzuen laguntzaz programatzen dituen jarduketaz gain, sarea irekita dago herritarren entitateentzat, enpresentzat, elkarteentzat edo bestelako tadeentzat, betiere lokalen bat erabili nahi badute bere izaerari eta helburuari lotutako jarduerak egiteko, baldin eta arau honetan eta udal lokalak erabiltzeko tarifen arauan eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

13. artikulua. Udalak, bere erakunde autonomoek, kudeaketa enpresak edo Udalaren partaidetza duten entitateek antolatzen dituzten jardueren ondoriozko beharren mende egonen dira, beti, beste entitate batzuek edo partikularrek erabiltzeko baimenak, eta kasuan kasuko arauetan ezarritako prezio publikoak ordainduko beharko dira beti.

14. artikulua. Instalazioen erabilera lagatzerakoan, ekipamendu bakoitzaren erabilera araua eta lehentasun hurrenkera hau beteko dira:



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- Ohikoak eta edonork parte hartzeko diren jarduerak, Altsasuko entitateek antolatutak.
- Ohikoak eta edonork parte hartzeko diren jarduerak, ibarreko entitateek antolatutak.
- Ohiz kanpokoak eta edonork parte hartzeko diren jarduerak, Altsasuko entitateek antolatutak.
- Ohiz kanpokoak eta edonork parte hartzeko diren jarduerak, ibarreko entitateek antolatutak.

Artikulu honetan ezarritako hurrenkeraren arabera lehentasunezkoak diren jarduerak eragozten edo kaltetzen dituzten jarduerak ezin izanen dira egin.

15. artikulua. Espresuki debekatuta daude generoa, arraza, ideologia eta/edo sexu joera direla-eta bereizkeria sorrarazten duten jarduerak.

16. artikulua. Altsasuko Udalak babes eta ikuskapenerako dituen ahalmenak erabiliko ditu une oroz, eta beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, jardueraren sustatzaileek izendatutako erantzuleei entzunaldia eman ondoren. Instalazioetan sar daitekeen pertsonen kopuruak muga bat duenez, kopuru hori gainditzea galarazi beharko du Udalak.

17. artikulua. Eremuak eskatzea.

17.1. artikulua. Udal lokalak erabiltzeko eskaerak instalazio bakoitzeko erabilera arauan ezarritako epean aurkeztuko dira, dagokien ereduaren bitartez. Eskaeran datu hauek jarriko dira: jarduera nolako den, zein egun, ordu eta tokitan egin nahi den, parte-hartzaileen gutxi gorabeherako kopurua eta enpresa antolatzailearen datuak. Eskaerak behar bezala beteta eta ekintzaren arduradunak sinatuta egon beharko du. Altsasuko Udalak egokiak iruditzen zaizkion agiri osagarriak eskatu ahalko ditu.

17.2. artikulua. Eskaerak jasoko dituzten organoak: instalazioa atxikia duen udal zerbitzua.

17.3. artikulua. Eremu bat modu jarraituan eskatzeak ez du eskubiderik, aurrekaririk, abantailarik edo erreserbarik sortuko erabilera bukatu ondoko urte edo erabilerei begira.

17.4. artikulua. Urtero, iraileko lehen hamabostaldian, jarduera iraunkorrak egiteko eremuak eskatzeko epea irekiko da, eta horren gaineko ebazpena hilabete bukaerarako emanen da.

18. artikulua. Erabiltzeko baimenak.

18.1. artikulua. Baimena emanen duen organoa: Eremuak noizbehinkakoak eta ohikoak diren jardueretarako erabiltzeko baimenak kasuan kasuko zerbitzuak emanen ditu. Eremuak jarduera iraunkorrak eta/edo ohiz kanpokoak egiteko erabili nahi direnean, berriz, Tokiko Gobernu Batzarrak emanen ditu baimenak.

18.2. artikulua. Baimena ematen duen organoak egiaztatu beharrekoak: eskaerako datuak, proposatutako jarduera kapitulu honetan ezarritakoarekin bat datorren, segurtasuneko bermeak



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

eta indarra duen araudiaren arabera eska daitezkeen beste batzuk, eskatutako eremu eta zerbitzuen erabilgarritasuna, eta eskatutako ordutegiaren eta lehentasunezko jarduerak egiteko aurreikusitakoaren arteko bateragarritasuna. Gainera, instalazioa lagatzeko baidintza orokorrak ezarri beharko ditu, egoera ezin hobea izan dezan ondorengo erabiltzaileentzat; gutxienez ere alderdi hauek azalduko dira:

–Zer helburutarako lagatzen den.

–Lagapenaren ordutegia eta/edo egutegia zehaztea.

–Pertsonen eta gauzen segurtasuna bermatzeko neurri zuzentzaileak, eskatzaileak egin nahi duen jardueraren ondoriozko arriskuen arabera.

–Prezio publikoen araua aplikaturik ateratzen den prezio publikoaren zenbatekoa, hala denean.

–Baimenak ezartzen dituen beharkizunak betetzearen erantzulearen identifikazioa.

18.3. artikulua. Lagapena lortzen duten sustatzaileek erabileraren baimenean ezarritakoa errespetatu beharko dute beti.

18.4. artikulua. Bi eskatzailek edo gehiagok eremua erabiltzeko egiten dituzten eskaerak bat datozenean, irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenkera baztertzaile honen bidez:

1. Lehentasun maila, 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Lagatzeko aukera, langileen ordutegien eta giza baliabide erabilgarrien arabera.
3. Jardueraren interesa eta eragina, baimena ematen duen organoaren irizpideari jarraikiz.
4. Entitate antolatzailearen ibilbidea.

18.5. artikulua. Aurreikusitako jarduera egiteko eta eskaeran ezarritako denborarako soilik emanen dira baimenak.

18.6. artikulua. Baimena pertsonala izanen da eta ezin izanen zaie beste batzuei utzi. Debeku hau betetzen ez bada baliorik gabe utziko da baimena.

18.7. artikulua. Eskaera zein elkarte, erakunde edo entitateren izenean egiten den, haren burua, legezko ordezkaria edo pertsona fisiko eskatzailea bera izanen da erantzulea, Udalaren aurrean, emandako baimenak ezartzen dituen beharkizunak betetzearen gainean.

18.8. artikulua. Indarra duen administrazio prozedurari buruzko legedian ezarritakoarekin bat, erabilera eskaerei ezetza ematen zaienean, behar bezala arrazoitu beharko dira ezezko horiek.

19. artikulua. Ebazpenak deuseztatzea, baliogabetzea eta etetea.



19.1. artikulua. Udalak ezetsi egin ahalko ditu jardueretarako eskaerak, baldin eta, bere ustez, eremuetarako egokiak ez badira edo langileak, instalazioak edo ekipamenduak arriskuan jar baditzakete.

19.2. artikulua. Udalak deuseztatu egin dezake aretoak erabiltzeko baimena, baldin eta jarduerak gainerako erabiltzaileei edo beste pertsona batzuei eragozpen nabarmenak sortu ahal badizkie, baita baimena jada emanda dagoen kasuetan ere, eta egiaztatzen bada jarduerak arriskuak edo eragozpenak sortzen dituela edo bateraezina dela aurreikusi diren gainerako jarduerekin.

Baimena deuseztatu edo baliogabetzeko ebazpenak debekatu egingen du kasuan kasuko jarduerara. Etete ebazpenak etendako jardueran aritzea galaraziko du, harik eta etetea ekarri duen arrazoia desagertzen den arte.

IV. KAPITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

20. artikulua. Eskubideak. Erabiltzaile guztiek eskubide hauek dituzte:

1. Erabiltzaileek instalazioa erabiltzeko eskubidea dute, haren izaera, baimendutako jarduerarena eta ordenantza honek erabilera horri buruz ezarritakoa kontuan izanik.
2. Instalazioak, altzariak eta ekipamendua erabilera baldintza onetan erabiltzeko eskubidea, kasuan kasuko denboran eta erabileraren helburuari loturik.
3. Erabiltzaile guztiek eskubidea dute bidezkoak iruditzen zaizkien kexa, erreklamazio eta iradokizunak egiteko, bide hauen bitartez: instalazioetan beren eskura dauden inprimakiak, iradokizunetarako buzoia, Udalaren web orria edo Alkatetzari bidalitako idazkia.
4. Aretoak erabilera baimenean ezarritako baldintzetan topatzeko eskubidea.

21. artikulua. Betebeharrak. Pertsona eta entitate erabiltzaileek eskubide hauek dituzte:

1. Aretoen esleipena errespetatzea.
2. Jardueren ordutegiek eta egutegiek bat etorri beharko dute eskaeran adierazitakoekin, eta horiek, beti, instalazioaren ordutegi eta egutegiarekin. Jarduerak ezin du eragotzi edo kaltetu zentroaren ohiko funtzionamendua.
3. Instalazioa garbi eta egoera onean mantentzea, paperontziak erabiliz eta dagoen ekipamendua errespetatuz.
4. Zentroko langileek eremuan sartzeari edo bertatik irteteari buruz eman ditzaketen jarraibideak betetzea, baita eman beharrekotzat jotzen duten beste edozein jarraibide ere.
5. Instalazio bakoitzean ezartzen diren erabilera arauak betetzea.



6. Instalazioan akatsen bat edo hondatutako zerbait ikusten bada eta horrek beste erabiltzaile batzuei arriskua sor badieziaieke edo instalazioaren ohiko funtzionamendua kaltetu, horren berri ematea instalazioaren arduradunari.

7. Gainerako erabiltzaileak eta instalazioko langileak errespetuz tratatzea.

22. artikulua. Aplikatu beharreko zehapen araubidea galarazi gabe, Udalak onartze eskubidea izanen du; ekipamendu bakoitzeko langileek ahalmena izanen dute araudi honetan ezarritako erabilera arauak hausten dituztenak eta, nolabait, jardueraren gauzatze egokia baldintzatzen dutenak kanporatzeko. Instalaziotik kanporatuz gero, ez da eskubiderik izanen ordaindutako prezioak itzultzeko.

V. KAPITULUA. UDALAREN INSTALAZIOEN SAREA ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

23. artikulua. Instalazioen sarea erabiltzeko arau orokorrak:

1. Instalazioetan ezin izanen da animaliarik sartu. Debeku horretatik salbuetsirik daude itsuzakurrak, baldin eta identifikatuta badaude, beren lana egiten ari badira eta higiene eta osasungarritasun baldintzak betetzen badituzte.

2. Debeak dago instalazioan bizikletekin, patinekin edo edozein ibilgailu edo tramankulurekin sartzea.

3. Ezin izanen da sartu edukierarako zehaztu den kopurua baino jende gehiago.

4. Altsasuko Udala ez da instalazioan gertatzen diren galera edo lapurreten erantzule izanen. Baliozko gauzarik ez eramateko gomendioa egiten da. Ez dago gauzak zaintzeko zerbitzurik.

VI. KAPITULUA. SUSTATZAILEEK (ELKARTE, ENTITATE EDO PARTIKULARREK) INSTALAZIOAK ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

24. artikulua. Sustatzaileek instalazioak erabiltzeko baldintza orokorrak hauek dira:

1. Sustatzaileek 21. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2. Lagatoko eremua beraiei dagozkien xedeetarako eta baimendutako jarduerarako erabiltzea.

3. Entitate antolatzailea behartuta dago Ikuskizun Publikoak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/89 Foru Legean xedatutakoa zorrotz betearaztera, eta bai eskatzailea bai hark ordezkatzeko duen entitatea lege horretan ezarritakoa ez betetzearen erantzule izanen dira. Betiere, entitate antolatzailearen betebeharra izanen da baimena eskuratzea, eta jarduera egitearen ondorioz jabetza intelektualeko sortzen diren eskubideak gauzatzea jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituen entitatearen aitzinean.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

4. Udalak eskubidea izanen du aseguru edo fidantza bat eskatzeko, jarduerak sortzen dituen arriskuen arabera.
5. Instalazioaren arduradunek instalazioa eta ekipamendua erabiltzeko moduari buruz ematen dituzten jarraibideak bete beharko dituzte eta, bereziki, segurtasunari eta norik bere burua babesteari buruzko arauak, bai eta ekipamenduari atxikitako langileek eman beharrekotzat jotzen duten beste edozein jarraibide ere.
6. Jardueraren kontrol eta segurtasunerako arduradun bat izendatzea gutxienez; arduradun horrek instalazioan egon beharko du une oroz jarduera egiten den bitartean, baita jarduera prestatzeko aldiak ere. Halaber, pertsona horiek, jarduera bukatu ondoren, Udalak izendatutako langileekin batera, eraikina aztertzeko itzuli bat egingen dute, horrela egiaztatzeko bai ekipamendua bai instalazioa egoera onean daudela, eta, horrela ez badaude, gertakarien parteak idatzi beharko dute.
7. Jarduera amaitutakoan, entitate antolatzailea arduratuko da instalazioak erabiltzeko ongi gelditu daitezela, jarduera hasi aurretik zeuden egoera berean, eta instalazioaz arduratzen diren langileek oniritzia eman beharko dute.
8. Instalazioak erabiltzeko eskaera egiten duten entitateak arauak betetzeaz arduratuko dira eta sortutako eskubideak ordaindu beharko dituzte. Horretaz gainera, jantzigeletan edo beste eremu batzuetan utzitako gauzen erantzuleak izanen dira entitateak, eta uko egiten dio horien gaineko erantzukizun orori Udalak.
9. Kontrakoa erabaki ezik, eremuak lagatzeak ez du ekarriko Udalak inolako materialik gorde eta biltegitratzea. Inguruabarren bat dela medio, erabiltzaileek aldi batez erabili ahalko dituzte instalazioetako biltegi eremuak, horietan lanabesak, tresnak etab. gordetzeko.
10. Ekitaldiaren publizitatearen eta material teknikoaren gastuak, beharrezkoak izanez gero, entitate baimenduaren kargura izanen dira.
11. Instalazioak dituen langileak baino gehiago behar badira ekitaldia egiteko, sustatzaileak jarri edo kontratatutako dituen bere kontura, indarra duen legedian ezarritakoaren arabera beti.
12. Ekipamenduak dituen aparatu espezializatuak ez erabiltzea. Udalak esandako teknikariek soilik ukituko dituzte.
13. Zergen, administrazioaren, lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko arriskuei aurrea hartzearen arloetan indarra duten xedapenak betetzea, baita aplikatu beharreko beste edozein araudi sektorial ere, eta, Udalak eskaturik, betetze hori frogatzea.
14. Udal instalazioetan baimendutako ekitaldien publizitatea egitean, baimen espresak izan ezik, argi azaldu beharko da Udalaren laguntza izan dela, eta logotipo ofiziala jarri beharko da.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

15. Udal instalazioak erabiltzeko prezio publikoen arauan ezarritako prezio publikoak ordaintzea, hala behar denean, hilabete lehenago. Udalak fidantza bat eska dezake, eta horren zenbatekoak ziurtatuko du instalazioak ongi erabiltzen direla eta ez dela kalterik egiten. Altsasuko Udalak fidantza eskatu baina jartzen ez denean, ez da instalazioak erabiltzeko baimenik emanen.

VII. KAPITULUA. SEGURTASUNA KONTROLATZEA ETA ARRISKUEI AUREA HARTZEA

25. artikulua. Antolatzaileak segurtasunari buruz indarra duten arauak betetzeko konpromisoa hartzen du eta, bereziki, aretoen gehieneko edukierari, larrialdietako irteerei eta suteen aurkako neurriei dagozkienak. Orobat, segurtasuna kontrolatzeko neurriak hartzeko bidea eman behar du, neurri horiek eskatzen dituzten ekitaldiak egiten direnean, eta une oroz bermatu beharko du ikuskizun bakoitzerako ezarritako segurtasun baldintzak betetzen direla.

26. artikulua. Eremu bakoitzaren gehieneko edukiera instalazio bakoitzaren erabilera arauan ezarritakoa izanen da. Garbi egon beharko dute beti sarbideek, pasabideek eta larrialdietako irteerek. Ekitaldiaren sustatzailea izanen da hori betetzearen erantzulea.

27. artikulua. Ez da inolaz ere onartuko eraikinaren barnean gai sukoiak, gasolina, azetilenoa, petrolioa etab. erabili edo garraiatzea. Erabat debekatuta dago banakako berogailuak erabiltzea.

28. artikulua. Pertsonentzako edo ondasun materialentzako arriskua dagoela ikusten bada, eten egin beharko da instalazio elektrikoaren hornidura.

29. artikulua. Elektrizitate harguneetako loturak Udalak berak baimendutako teknikariek eginen dituzte beti, eta erabat debekatuta dago edozein pertsona sareko hargune kaxetan sartzea.

30. artikulua. Udalak ez ditu bere gain hartuko bere zerbitzuari zuzenean lotuta ez dauden langileen lan istripuak; antolatzaileak bere gain hartu beharko du istripuetarako aseguruia, ekitaldiko jardueraren bat gauzatzeko kontratatzen dituen langileentzat.

VIII. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

31. artikulua. Zehapen araubidea.

Erregelamendu honetan ezarritako arauak ez betetzea arau-hauste administratiboa da eta zehapena jartzea ekar dezake. Zehapen ahalmena honako arau hauen arabera gauzatuko da: Zehapen ahalmena erabiltzeko prozedura onesten duen erregelamendua (1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa), 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatu beharrekoak diren eta indarra duten gainerako arauak.



32. artikulua. Alkatetza izanen da zehapen prozedurak hasteko eta zehapenak jartzeko organo eskuduna; espedientearen instrukzioa espedientea kudeatzen duen unitateak eginen du.

33. artikulua. Erantzukizunak.

Erregelamendu honi buruz egindako arau-hausteen erantzule zuzenak izanen dira arau-hausteen egile materialak, dela egitez dela ez-egitez, salbu eta adingabeen edo egozgarritasuneko legezko zioeren bat duten pertsonen kasuan. Kasu horretan, kalteen erantzuleak aitak, amak, tutoreak edo legezko zaintza duten pertsonak izanen dira. Arau-haustearen gaineko erantzukizuna adierazteak eta zehapena ezartzeak ez dute saihestuko, inolaz ere, egindako kalte eta galerak ordaindu beharra.

Entitate antolatzaile guztiek beren gain hartuko dituzte eskatzen ahal zaizkien erantzukizun zibil, penal eta administratiboak, eta berdin lan nahiz zerga arlokoak, edo edozein moldetakoak, eta beren esku geldituko dira oso-osorik beren erantzukizun horien ondoriozko kalte eta galeren ordainak, Udala horietatik arrunt salbu geldituko baita.

Udalak ez du inongo erantzukizunik izanen jendeak egiten dituen gauzengatik, entitate antolatzailearena baita, oso-osorik, erantzukizun hori.

Entitate antolatzaileak bere gain hartuko ditu instalazioak behar bezala ez erabiltzeagatik egiten diren hondamen edo kalteen konponketak edo kalte-ordainak, edozein izanagatik haien arrazoia edo zergatia. Horretarako, Udalak likidazioa aurkeztuko dio, non ez duen berak zuzenean hartzen egin behar diren konponketen ardura, Udalaren zuzendaritzapean eta haren adostasunarekin.

34. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen sailkapena.

Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

34.1. artikulua. Arau-hauste arinak izanen dira borondatezko ekintzak edo ez-egiteak, arau-hauste larri edo oso larri gisa sailkatu ez direnak, baldin eta erregelamendu honetan ezarritako arauak ez betetzea ekartzen badute eta, bereziki:

1. Instalazioen ohiko funtzionamendua eragozteak edo oztopatzea, edo zerbitzuari atxikitako langileen lanari oztopoak jartzea, ezarritako betebeharrak ez betez edo erregelamendu honetan ageri diren debekuak urratuz eta, bereziki, 22. artikuluan eta V. kapituluan ezarritako betebeharrak eta arauak ez betetzea edo aipatu langileek emandako gomendioei jaramonik ez egitea.

2. Osasungarritasun eta egokitasun publikoan nahasmendua sortzea, 13. eta 20. artikuluetan ezarritako betebeharrak ez betez, eta aipatze aldera, instalazioan erretzea edo gai psikotropikoak kontsumitzea edo edari alkoholodunak edatea, likidoak botatzea horretarako ez diren tokietan, instalazioetan gauza desegokiak sartzea edo hondakin solidoak botatzea denek erabiltzeko eremuan baimendu gabeko tokietan.



3. Instalazioen erabiltzaileei ezarritako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea, instalazioetan kalteak eraginez edo gainerako erabiltzaileei eragozpenak.

4. Hondatze arinak edo txikiak egitea ekipamenduetan, azpiegituretan, instalazioetan edo instalazioetako elementuetan, eraikinaren elementuetan edo materialetan, zerbitzuari atxikietan, ondasun higigarriak edo higiezinak izan, betiere konpontzearen edo ordeztearen kostua 200 eurotik beherakoa bada (BEZa barne).

34.2. artikulua. Hona hemen arau-hauste larriak:

1. Hondatze egintzak egitea ekipamenduetan, azpiegituretan, instalazioetan edo instalazioetako elementuetan, eraikinaren elementuetan edo materialetan, zerbitzuari atxikietan, ondasun higigarriak edo higiezinak izan, betiere konpontzearen edo ordeztearen kostua 600 eurotik 1.200 eurora bitartekoa bada (BEZa barne).

2. Ekitaldiak, jarduerak edo ikuskizunak egiteko adierazitako baldintzak ez betetzea.

3. Instalazioetan egitekoak diren ekitaldietara joanen direnen edo horietan parte hartuko dutenen nortasunari edo adinari buruzko datuak nahita faltsutzea.

4. Arriskuei aurrea hartzeko neurriak eta osasun edo segurtasun neurriak ez betetzea, horiek nahitaez eskatzen direnean instalazioetan egitekoak diren ikuskizun, ekitaldi edo jardueretan parte hartzen dutenen edo horietara joaten direnen osotasun fisikorako.

5. Instalazioetan lanean aritzen diren langileen aginduak ez betetzea edo horiei aurka egitea.

6. Urte natural batean hiru arau-hauste arin edo gehiago egitea.

7. Instalazioko teknikari eta arduradunenganako edo gainerako erabiltzaileenganako errespeturik ez izatea, eta horiek iraintzea, mehatxatzea edo horienganako begirune falta larria izatea.

8. Segurtasun arauak eta/edo autobabeserako eta larrialdietarako planean azaltzen direnak ez betetzea.

9. Edozein jarduera mota beharrezkoa den baimena izan gabe egitea edo baimenean ezarritako baldintzak ez betetzea.

34.3. artikulua. Hona hemen arau-hauste oso larriak:

1. Hondatze egintzak egitea ekipamenduetan, azpiegituretan, instalazioetan edo instalazioetako elementuetan, eraikinaren elementuetan edo materialetan, zerbitzuari atxikietan, ondasun higigarriak edo higiezinak izan, betiere konpontzearen edo ordeztearen kostua 1.200 eurotik gorakoa bada (BEZa barne).



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

2. Urte natural batean hiru arau-hauste larri edo gehiago egitea.

3. Zerbitzu publiko baten ohiko funtzionamendua galaraztea edo horretarako oztopo larriak jartzea.

4. Zerbitzu publiko baten ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak edo elementuak modu larrian hondatzea.

35. artikulua. Zehapenak.

35.1. artikulua. Arau-hauste arinak jarduera astebetetik hilabete batera bitarte etenez zehatuko dira.

35.2. artikulua. Arau-hauste larriak zehatuko dira 1.500 euro bitarteko isunarekin eta/edo ekipamendua erabiltzeko eskubidea hilabete batetik urtebetera bitarte galduz.

35.3. artikulua. Arau-hauste oso larriak zehatuko dira 3.000 euro bitarteko isunarekin eta/edo instalazioak erabiltzeko eskubidea urtebetetik gora kenduz, eta aukera izanen da aipatu eskubidea behin betiko kentzeko.

Horretaz guztiaz gainera, arau-hausleari eskatu ahalko zaio udal ondasunak hasieran zuten egoerara itzultzeko, baita sortutako kalte eta galeren ordaina emateko ere.

Zehapenak ezartzerakoan kontuan izanen da arauak nahita hautsi diren edo behin eta berriz hausten diren eta sortutako kalteak nolakoak diren.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Araudi honetako xedapenak osagarriak izanen dira, indarra hartzen duenean lokal, instalazio eta eraikinean gainean indarra duten erabaki, kontratu edo hitzarmenetan ezarritakoari dagokionez.

AZKEN XEDAPENETAN LEHENA.

Alkatetzari ahalmena ematen zaio, araudi honetan ezarritakoa garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAN BIGARRENA.

Indargabetu egin dira arau honetan ezarritakoaren aurkako maila bereko edo apalagoko arau guztiak.

AZKEN XEDAPENETAN HIRUGARRENA.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.